

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### Ondare Kudeaketa

#### Esleitu gabe uztea azken miliako banaketa jasangarrirako guneko mikrologistikoa sortzeko udal titulartasuneko higiezin bat alokatzeko kontratua esleitzeko prozedura (42-2024 dosierra)

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko irailaren 27an egindako bilkuran:

Esleitu gabe uztea azken miliako banaketa jasangarrirako guneko mikrologistikoa sortzeko udal titulartasuneko higiezin bat alokatzeko kontratua esleitzeko prozedura (42-2024 dosierra).

2024ko uztailaren 2an erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Vera-Fajardo Margolariaren kaleko 13-15 zenbakian dagoen eta Vicente Abreu Margolariaren kaletik sarbidea duen udal titulartasuneko higiezin bat (I-1792 gisa inbentariatua, ondare izaerarekin) alokatzeko kontratua esleitzeko deialdia eta baldintza-agiria onestea, Vitoria-Gasteizen azken milian salgaien hiri-banaketarako guneko mikrologistikoa gisa erabiltzeko.

Erabaki hori betetze aldera, lizitazioaren deialdia egin zen, eta 2024ko uztailaren 19ko ALHAOn argitaratu. Eskaintzak aurkezteko epea 2024ko irailaren 15ean amaitu zen, eta epe horretan ez zen proposamenik jaso.

Ondareko ondasun eta eskubideen aprobetxamendu eta ustiaketaren erregimena Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen II. kapituluaren (105. artikulua eta hurrengoak) dago araututa oro har, eta Toki Erakundearen Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuan bereziki tokiko entitateei dagokienez.

Adierazitako guztia kontuan izanik eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari dagokionez, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Erabaki-proposamena

Lehena: Esleitu gabe uztea Gobernu Batzarraren 2024ko uztailaren 2ko Erabakiaren bidez abiarazitako prozedura Vera-Fajardo Margolariaren kaleko 13-15 zenbakian dagoen eta Vicente Abreu Margolariaren kaletik sarbidea duen udal titulartasuneko higiezin (I-1792 gisa inbentariatua, ondare izaerarekin) alokatzeko kontratua esleitzeko, Vitoria-Gasteizen azken milian salgaien hiri-banaketarako guneko mikrologistikoa gisa erabiltzeko.

Bigarrena: Ebazpen hau ALHAOn eta webgunean argitara dadila agintzea.

Hirugarrena: Erabakia Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari jakinaraztea, hark proposatu baitu.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 7an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria  
JON ARMENTIA FRUCTUOSO